# Xedapen Orokorrak

## ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

**216**

2/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema hezurmamitzen du, eta funtsezko bi osagai esleitzen dizkio: prestazio ekonomikoak eta gizarteratzera eta laneratzera bideraturiko tresnak. Lehenengoen artean ere, argi eta garbi bereizitako bi kategoria ezartzen ditu: eskubideko diru-prestazioak -Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria- eta subentzio-erako diru-laguntzak.

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria eskubideko prestazio gisa eratzea –eskubide subjektibokoa, Legearen arabera– Sistemaren funtsezko pieza bihurtzen du eta, funtsean, legegilearen helburu espezifiko eta esanbidezkoaren isla da, hots, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekiko osagarria den prestazio ekonomikoen sistema bat egituratzea, biztanleriaren talde kalteberenetako bati etxebizitzarekin loturiko gastuei aurre egitea ahalbidetzeko. Funtsezko gastuen estalduran nolabaiteko egonkortasuna bermatzeaz gain, jarduteko tresna horrek badu erantsitako beste dohain bat, hots, Gizarte-larrialdietarako Laguntzak berbidera ditzake beren jatorrizko bokaziorantz, hau da, ezohiko gastuei aurre egitea, desbideratze bat zuzenduta, urteen poderioz, eta premiak tarteko, Gizarte-larrialdietarako Laguntzak praktikan aldizkakoak izan baitira eta etxebizitza-gastuei aurre egiteko baliatu dira, proportzio oso handi batean. Aurrekoak ez du inola ere esan nahi etxebizitza gastuak baztertuta geratuko direnik Gizarte-larrialdietarako Laguntzei arau-esparru berrian esleituriko helburuetatik, baizik eta gastu horiek betetzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular ez diren pertsonei soilik esleitu ahalko zaizkiela.

Interesgarria da adieraztea berrikuntza honen bidez, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak gizarte-laguntzako eskumenetako etxebizitzako gastuetarako prestazioa babesten duela, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sisteman bilduta, baina aldi baterako egiten du, erantzun partziala eta iragankorra emanez arlo estrukturaleko arazo bati, non eta ez diren etxebizitzaren politika publikoaren esparruan artikulatzen

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

**216**

DECRETO 2/2010, de 12 de enero, de la prestación complementaria de vivienda.

La Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, otorga carta de naturaleza al Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social y le atribuye dos componentes esenciales: las prestaciones económicas y los instrumentos orientados a la inclusión social y laboral. Entre las primeras, a su vez, distingue dos categorías claramente diferenciadas: las prestaciones económicas de derecho -Renta de Garantía de Ingresos y Prestación Complementaria de Vivienda- y las ayudas económicas subvencionales –Ayudas de Emergencia Social-.

La constitución de la Prestación Complementaria de Vivienda en prestación de derecho –de derecho subjetivo, a tenor de la Ley- la convierte en pieza clave del Sistema y es reflejo directo, en su esencia, de un objetivo específico y expreso del legislador, a saber, articular un sistema de prestaciones económicas de carácter complementario a la Renta de Garantía de Ingresos, que permita a uno de los grupos más vulnerables de la población afrontar los gastos relacionados con la vivienda. Además de garantizar cierta estabilidad en la cobertura de gastos esenciales, este instrumento de actuación tiene la virtud añadida de hacer posible una reorientación de las Ayudas de Emergencia Social hacia su vocación originaria, a saber, la cobertura de gastos extraordinarios, corrigiendo así una deriva que, por razones de necesidad, había llevado, con el curso de los años, a que las Ayudas de Emergencia Social adquirieran, en la práctica, un carácter periódico y se destinaran, en una elevadísima proporción, a la cobertura de gastos de vivienda. Lo anterior en ningún caso significa que los gastos de vivienda queden excluidos de las finalidades atribuidas en el nuevo marco normativo a las Ayudas de Emergencia Social, sino que sólo podrán atribuirse para la cobertura de dichos gastos a personas que no sean titulares de la Renta de Garantía de Ingresos.

Interesa señalar que con esta innovación, la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social ampara la prestación complementaria de vivienda en las competencias de asistencia social, integrándola en el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social, pero lo hace de forma transitoria, aportando una respuesta parcial y temporal a un problema de corte estructural, en tanto no se articulen, en el marco de la política

antzeko edo bestelako neurriak, kolektibo kaltebera eta behartsuenen etxebizitza baliatzeko premia berari estaldura emango diotenak.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean bilduriko prestazio honen, eta bereziki prestazio ekonomikoen ezaugarriei eskainitako I. kapituluaren 2. atalean barne harturiko preskripzioen eta hurrenez hurren baliabideen mailaren zehaztapenari, prestazioen erregimen ekonomikoari, bateragarritasun eta bateraezintasunen erregimenari eta prozedura-arauei eskainitako II., III., IV. eta V. kapituluetan barne harturiko preskripzioen arautzearen oinarriaren gainean, Dekretu honek arauzko osagarri bat ekartzen duen prestazio horren alderdi espezifikoak garatzea du helburu, zazpi kapitulutan egituratuta, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Dekretu arautzailera bilduta aplikazio erkidekoak diren beste alderdi guztietarako.

I. kapituluak xedapen orokorrak biltzen ditu eta prestazioaren definizio-elementuak ezartzen ditu: xedea, definizioa, ezaugarriak, estaltzen dituen gastuak, eskubidearen pertsona titularrak, titular bat baino gehiago batera gertatzea eta prestazioen gehieneko kopurua etxebizitza edo alojamendu bakoitzeko, pertsona titularren obligazioak eta zenbatekoa zehazteari buruzko xedapenak. Garrantzi propioa duten alderdi jakin batzuk nabarmentzen dira arautze horretan:

– Horrela, ezaugarrien artean, arau espezifikoak konpentsazioko edo deskontuko kasuetarako aurreikusitako legezko salbuespenaren hedadura biltzen du, eta aplikagarri egiten du gizarte-arloko edozein prestazio ekonomikorengatik behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzultzeari dagokionez, prestazioaren zenbatekoaren % 30eko gehieneko mugaraino.

– Prestazioa baliatzeko eskakizunei dagokienez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular edozein modalitatetan izateaz gain eta pertsona ohiko etxebizitza edo bizitokiaren alokairu-gastuei aurre egiteko premian egoteaz gain, errentamenduko edozein modalitatetan, eskatzen da inolako ahaidetasun-harremanik ez egotea odolkidetasun edo ahaidetasunezko hirugarren mailaraino bizikidetza-unitatea osatzen duen edozein kideren eta errentatzailearen artean, eta etxebizitza alokatzeko eskatzaile gisa erregistro bat egotea edo izapide-fasean egotea Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide zerbitzuan. Dena den, bi kasutan dago salbuetsita azken eskakizun horren aplikazioa, arauaren xedearekiko koherentziaz: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria baliatzeko eskakizunak beteta ere, Etxebiden sartzeko eskakizunak betetzen ez dituzten pertsonak, bizileku-baldintza betetzen ez dutelako edo baliatzeko gutxieneko ekono-

pública de vivienda, medidas análogas o de otra naturaleza que den cobertura a la misma necesidad de acceso a la vivienda de los colectivos más vulnerables y desfavorecidos.

Sobre la base de la regulación de esta prestación contenida en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, y en particular de las prescripciones incluidas en el Título II de dicho cuerpo legal, tanto en la sección 2.ª del Capítulo I, dedicado a las características de las prestaciones económicas, como en los Capítulos II, III, IV y V dedicados, respectivamente, a la determinación del nivel de recursos, al régimen económico de las prestaciones, al régimen de compatibilidades e incompatibilidades, y a las normas de procedimiento, el presente Decreto tiene por objeto desarrollar, estructurándolos en siete capítulos, determinados aspectos específicos de esta prestación que requieren un complemento reglamentario, remitiendo al decreto regulador de la Renta de Garantía de Ingresos para aquellos otros aspectos que sean de aplicación común.

El Capítulo I recoge las disposiciones generales y establece los elementos definitorios de la prestación: el objeto, la definición, las características, los gastos a los que da cobertura, las personas titulares del derecho, la concurrencia de titulares y el número máximo de prestaciones por vivienda o alojamiento, las obligaciones de las personas titulares y las disposiciones referidas a la determinación de la cuantía. En esta regulación destacan aspectos concretos de marcada relevancia:

– Así, entre las características, la norma especifica el alcance de la excepción legal prevista para los supuestos de compensación o descuento, haciéndola aplicable al reintegro de las cuantías indebidamente percibidas en concepto de cualquier prestación económica de carácter social, hasta un límite máximo del 30% de la cuantía de la prestación.

– Por lo que se refiere a los requisitos de acceso a la prestación, además de ser titular de la Renta de Garantía de Ingresos en cualquiera de sus modalidades y de encontrarse la persona en la necesidad de hacer frente a los gastos de alquiler de vivienda o alojamiento habitual, en cualquiera de las modalidades de arrendamiento, se exige que no exista relación de parentesco hasta el tercer grado de consanguinidad o afinidad entre cualquiera de las personas miembros que constituyen la unidad de convivencia de la persona solicitante y la persona arrendadora o cualquiera de las personas miembros de su unidad familiar y que exista o esté tramitándose una inscripción como solicitante de vivienda de alquiler en el servicio Etxebide del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Con todo, la aplicación de este último requisito, por coherencia con la finalidad de la norma, queda exceptuada en dos supuestos: el de las personas que, cumpliendo los requisitos de acce-

mikoak betetzen ez dituztelako, eta 65 urtetik gorako pertsonena, zahartzaroko kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioen onuradunak, bizileku berean 10 urte baino gehiagoz bizi direla egiaztatzen dutenak, edo gutxieneko epe hori betetzen ez badute ere, ohiko bizilekuan geratu beharra dutenak, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ustez.

– Garrantzi handiko beste hirugarren elementu bat 6. artikuluan bilduta, etxebizitza bati eman beharreko prestazio osagarrien gehieneko kopurua zehazteari buruzkoa. Eta hemen testuak bereizketa egiten du Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen espirituari eustea helburu duten hainbat suposizioren artean: alde batetik, aurreikusten du, ahaidetasun-loturek loturiko bizikidetza-unitateak badira, etxebizitza bera partekatzea, etxebizitzako gastuetarako prestazio bakarra emango dela; bestetik, ezartzen du etxebizitza berean ahaidetasun-loturarik ez duten unitateak bizi direnean, prestazioen gehieneko kopurua bi izango dela; azkenik, alojamendu kolektiboen kasuan –turismoko, hoteleko edo hotelaz kanpoko establezimenduak eta behin-behineko harrerako zentroak–, betiere horiek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen araudian definiturikoari jarraiki, ez da gehieneko mugarik aplikatuko.

– Laugarren oinarrizko alderdia 8. artikuluan bilduriko etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren gehieneko zenbatekoaren zehaztapenak ezartzen du: lehenengoa, orokorra, hilean 250 eurokoa izango dena; bigarrena, hilean 320 eurotan ezarritakoa, zirkunstantzia oso jakin batzuk gertatzen direnean soilik egokituko dena: bere kargura bi seme-alaba edo gehiago dituen bizikidetza-unitatea izatea, edo prestazioaren titularrak edo bizikidetza-unitateko beste edozein kidek ordainduriko jarduera egitea.

– II. kapituluak prestazioaren onarpena arautzen du, eta prozedura-alderdiak biltzen ditu –horrekin batera entregatu beharreko eskaera eta ageriak, izapidetzea, eduki ekonomikoko baliabide eta prestazioen egiaztapena, ebazpena–, baina baita eskubidea egikaritzeari berari buruzko alderdiak, hala nola prestazioaren sortzapena eta ordainketa, egindako gastuen justifikazioa eta eskubidearen iraupena. Prozedura-alderdiei dagokienez, nabarmentzekoa da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako aurreikusirikoaren oso antzeko prozedura baten aplikazioa –udal-arloko eskaera eta izapidetzea, eta ebazpena eta ordainketa foru-aldundiaren eskutik– eta, ahal den neurrian, bi

so a la Renta de Garantía de Ingresos y a la Prestación Complementaria de Vivienda, no cumplan los requisitos de acceso a Etxebide, bien por no cumplir el requisito de residencia, bien por no cumplir los mínimos económicos de acceso, y el de las personas mayores de 65 años, beneficiarias de pensiones contributivas o no contributivas de vejez, que acrediten un tiempo de residencia en el mismo domicilio de más de 10 años o que, aun no cumpliendo este período mínimo, requieran, a juicio del Servicio Social de Base correspondiente, mantenerse en su domicilio habitual.

– Un tercer elemento de gran relevancia viene recogido en el artículo 6, referido a la determinación del número máximo de prestaciones complementarias que cabría otorgar en una misma vivienda. Y aquí el texto diferencia diversos supuestos que tratan de salvaguardar el espíritu de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social: por un lado, prevé que cuando se trate de unidades de convivencia que, unidas por vínculos de parentesco, compartan una misma vivienda, se otorgará una única prestación complementaria de vivienda; por otro, establece que cuando en una misma vivienda convivan unidades que no tienen vínculos de parentesco el número máximo de prestaciones ascenderá a dos; finalmente, en el supuesto de los alojamientos colectivos -establecimientos de alojamiento turístico, hotelero o extrahotelero y centros de acogida temporal- en los términos en que estos se definan en la normativa reguladora de la Renta de Garantía de Ingresos, no se aplicará ningún límite máximo.

– Un cuarto aspecto básico viene dado por la determinación de la cuantía máxima de la prestación complementaria de vivienda que se recoge en el artículo 8. Esta disposición prevé dos cuantías máximas: una primera, de carácter general, que asciende a 250 euros mensuales; una segunda, establecida en 320 euros mensuales, que corresponderá únicamente cuando concurran circunstancias muy determinadas: bien que se trate de una unidad de convivencia con dos o más hijos o hijas a su cargo, bien que la persona titular de la prestación o cualquier otra persona miembro de la unidad de convivencia realice una actividad remunerada.

– El Capítulo II regula el reconocimiento de la prestación, y recoge aspectos procedimentales -la solicitud y la documentación que debe acompañarla, la instrucción, la comprobación de recursos y prestaciones de contenido económico, la resolución-, pero también aspectos referidos al ejercicio mismo del derecho, como son el devengo y el pago de la prestación, la justificación de los gastos realizados y la duración del derecho. En relación con los aspectos procedimentales, destaca la aplicación de un procedimiento muy similar al previsto para la Renta de Garantía de Ingresos –solicitud e instrucción en el nivel municipal, y resolución y pago desde la Diputación

prestazioak aldi berean izapidetzeko aukera baliatzea. Eskubidearen egikaritzearekin zuzen-zuzen loturiko alderdiei dagokienez, nabarmentzekoa da etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta aldi berean ordaintzea, etxebizitza-alokairuko gastuak justifikatzeko premia edo prestazioa eskatzen deneko bizitokia, eta prestazioaren iraupena, eta hori ez dago soilik prestazioa eman izanaren arrazoiek irautearen mende, baita ere titularrentzako aurreikusiriko betebeharrak betetzearen eta titulartasunak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan jarraitzearen mende ere. Azken horrekin lotuta, testuak argitzen du, gainera, prestazioa zuzenean lotuta geratzen dela Diru-sarrerak Bermatzeko errentarekin, berritzeko bi urtean behingo aldizkakotasunari dagokionez zein luzapen automatikoko kasuei dagokienez.

III. kapituluan, prestazioaren berrikuspeneko, aldaketako, eteteko eta azkentzeko kasuak arautzen ditu Dekretuak. Eteteak garrantzi berezia hartzen du, prestazioaren erabilera egokia bermatzeko eta eskatzeko funtsezko tresna den neurrian. Horri dagokionez, testuak aurreikusten du gertatu ahalko dela, osatzen duten Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren etete baten ondorio gisa edo beste zirkunstantzia batzuk batera gertatzearen ondorio gisa; horien artean, barnean hartzen dira 7. artikuluan bilduriko betebehar eta eskakizunak ez betetzearen kasuak, baina betiere sistemak bilatzen duen gizarteratzea sustatzeko azken helburuarekiko leial, Dekretuak espresuki aurreikusten du prestazioa ez eteteko aukera gizarteratzehitzarmenean itunduriko konpromisoetakoren bat betetzen ez bada, hitzarmenaren edukiak aldatzearen alde eginez eta konpromiso berriak sinatuta, pertsona titularraren premia eta aukerekiko doituagoak, betiere dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuak hasitako esku-hartze sozialarekin jarraitzeko premia adierazten badu. Etxebizitzako prestazio osagarrirako eskubidea etetearen ondorioei dagokienez, ordainketa etetea ekarriko du, eta kasu horietan ezin izango da Gizarte-larrialdietarako Laguntzen espedienterik izapidetu, ez etendako prestazioaren pertsona titularrak eskatuta, ez haren bizikidetza-unitateko beste ezein kidek eskatuta, nahiz eta kasu horretan ere, gizarteratzeko eta laneratzeko funtsezko helburuari begira, salbuespen bat sartuko den etete hori lan-egoeraren behin-behineko hobekuntza baten ondoriozko bizikidetza-unitatearen diru-sarreren behin-behineko igoerari zor bazaio.

Salbuespen-egoerak prestazioa jasotzeko eskubidea azkentzearen arautzean ere bilduta daude. Izan ere, esparru horretan, logikoki prestazioaren ordainketaren

Foral- y el recurso, en lo posible, a una tramitación simultánea de ambas prestaciones. En relación con los aspectos más directamente asociados al ejercicio del derecho, cabe destacar el pago simultáneo de la prestación complementaria de vivienda y de la Renta de Garantía de Ingresos, la necesidad de justificación de los gastos de alquiler de vivienda o alojamiento habitual para los que se solicita la prestación, y la duración de la prestación, quedando ésta condicionada no sólo a la subsistencia de las causas que motivaron su concesión, sino también al cumplimiento de las obligaciones previstas para las personas titulares y a la permanencia de la titularidad en la Renta de Garantía de Ingresos. En relación con esto último, el texto explicita, además, que la prestación queda directamente asociada a la Renta de Garantía de Ingresos tanto en relación con la periodicidad bienal de su renovación como en relación con los supuestos de prórroga automática.

En su Capítulo III, el Decreto regula los supuestos de revisión, modificación, suspensión y extinción de la prestación. La suspensión adquiere particular relevancia, en la medida en que constituye un instrumento esencial para garantizar y exigir el adecuado uso de la prestación. A este respecto, el texto prevé que podrá producirse bien como consecuencia de una suspensión de la Renta de Garantía de Ingresos a la que complementa, bien como consecuencia de la concurrencia de otras circunstancias; entre ellas, se incluyen los supuestos de incumplimiento por parte de la persona titular de las obligaciones y requisitos recogidos en el artículo 7, aunque fiel a la finalidad última de promoción de la inclusión social que persigue el Sistema, el decreto prevé expresamente la posibilidad de no suspender la prestación en los casos de incumplimiento de alguno de los compromisos pactados en el convenio de inclusión, optando por modificar los contenidos del convenio y firmar nuevos compromisos más ajustados a las necesidades y posibilidades reales de la persona titular, siempre que el Servicio Social de Base correspondiente informe de la necesidad de continuar la intervención social iniciada. Por lo que se refiere a los efectos de la suspensión del derecho a la prestación complementaria de vivienda, implicará la suspensión del pago y en tales supuestos no podrá instruirse ningún expediente de Ayudas de Emergencia Social, ni a solicitud de la persona titular de la prestación suspendida, ni a solicitud de cualquier otro miembro de su unidad de convivencia, aunque también aquí, en aras nuevamente del objetivo primordial de inclusión sociolaboral, se introduce una excepción para los casos en los que la suspensión se deba a un aumento temporal de los ingresos de la unidad de convivencia derivados de una mejora también temporal de la situación laboral.

La consideración de situaciones de excepcionalidad también se contempla en la regulación de la extinción del derecho a la prestación. En efecto, en su marco,

behin-behineko etetea aurreikusten bada, etete hori ez da aplikatutako azkentzearen arrazoia pertsona titularraren heriotza bada; bizikidetza-unitateak pertsona bakarrekoak ez diren kasuetan, prestazioa jasotzeko eskubidea ez da azkenduko eta, aitzitik, zendutakoaren ezkontidea edo harekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batuta zegoen pertsona subrogatuko da, eta ez da beharrezkoa izango beste espediente bati hasiera ematea. Horrelako pertsonarik egon ezean, oinarrizko gizarte-zerbitzuek aukeratuko dute zein den bizikidetza-unitatearen kiderik egokiena eskubidea subrogatzeko. Aurreikusita dago, gainera, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarrirako eskubidea azkentzeak bizikidetza-unitatearen gainerako kideentzako kalte nabarmenak ekartzen dituen kasuetan, premiaz eta lehentasunez izapidetuko da kide horiek prestazioa baliatzeko aukera.

Bidegabe jasotako prestazioen itzultzea arautzen duen IV. kapituluak, prozedurako arau erkideei buruzko V. kapituluak, espedienteak lekualdatzeari buruzko VI. kapituluak eta finantzaketari eta transferentziei buruzko VII. kapituluak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arautzean aurreikusirikoaren antzeko xedapenak biltzen dituzte, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria lotuta geratzen zaion prestazio nagusia denez.

Azkenik, Dekretuaren azken zatian, etxebizitzako prestazio osagarria martxan jartzeko berebiziko garrantzia duten aldi baterako bi xedapen biltzen dira. Lehenak Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eta Oinarrizko Errentaren araudira biltzea hartzen du kontuan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren araudi erregulatzailea onartzen ez den bitartean Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea garatuta. Bigarrenak, oraindik ere garrantzi handiagokoa dauzkan inplikazio praktikoengatik, izapidetzeko erregimen iragankor bat ezartzen du, aplikatzekoa izango den Dekretu hau indarrean jartzen denean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular direnei, –edo, kasuak kasu, Oinarrizko Errentaren titular izan direnei– eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradun izan badira, 2009. urtean, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuei aurre egiteko, eta hori prestazio nagusia berritzea egokitzen zaien arte, eta une horretatik aurrera Dekretu honetako xedeak izango dira aplikatzekoak.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak esateko zer zuten entzunda, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, urtarrilaren 12an eginiko Bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertuta eta onartuta, ondokoa

si bien se prevé lógicamente la suspensión definitiva del pago de la prestación, esta no se aplicará cuando la extinción se deba al fallecimiento de la persona titular; en tales supuestos, si la unidad de convivencia no es unipersonal, el derecho a la prestación no se extingue sino que su cónyuge o persona unida a ella por relación permanente análoga a la conyugal o, en su defecto, la persona que los Servicios Sociales de Base consideren más adecuada, se subroga, sin necesidad de incoar nuevo expediente, en la titularidad de aquella. Se prevé además que, en los supuestos en los que la extinción del derecho a la prestación complementaria de vivienda implique perjuicios manifiestos para las demás personas miembros de la unidad de convivencia, se tramitará con carácter de urgencia y prioritariamente el acceso de estos últimos a la prestación.

El Capítulo IV regulador del reintegro de prestaciones indebidas, el Capítulo V referido a las normas comunes de procedimiento, el VI dedicado al traslado de expedientes y el Capítulo VII dedicado a la financiación y las transferencias, recogen disposiciones de tenor similar al previsto en la regulación de la Renta de Garantía de Ingresos, en su calidad de prestación principal a la que queda asociada la prestación complementaria de vivienda.

Por último, en la parte final del Decreto, se incluyen dos disposiciones transitorias de fundamental importancia para la puesta en marcha de la prestación complementaria de vivienda. La primera contempla la remisión a la normativa reguladora del Ingreso Mínimo de Inserción y de la Renta Básica, en tanto no se apruebe la normativa reguladora de la Renta de Garantía de Ingresos en desarrollo de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y la Inclusión Social. La segunda, de mayor trascendencia todavía por sus implicaciones prácticas, establece un régimen transitorio de tramitación que será aplicable a quienes, a la entrada en vigor del presente Decreto, sean titulares de la Renta de Garantía de Ingresos -o, en su caso de la Renta Básica- y hubieran sido beneficiarias, en el año 2009, de las Ayudas de Emergencia Social para la cobertura de gastos de alquiler de la vivienda o alojamiento habitual, y ello hasta que les corresponda la renovación de la prestación principal, momento a partir del cual serán de aplicación el conjunto de las disposiciones del presente Decreto.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, oídas la Comisión Interinstitucional para la Inclusión Social y el Consejo Vasco para la Inclusión Social, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 12 de enero de 2010,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Helburua.

1.– Dekretu honen helburua Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritako Etxebizitzako gastuetarako prestazio Osagarria arautzea da, prestazio hori zer gastu-kontzeptutarako baliatuko den zehaztuta, baita prestazioa emateko eskakizunak eta aplikatzekoak zaizkion prozedurak ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan.

2.– Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean, Dekretu honetan eta dagozkion garapen-xedapenetan xedaturikoaren arabera eraenduko da Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria.

3.– Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren alderdi erkideei dagokienez, batez ere bizikidetza-unitateari, etxebizitza- edo bizitoki-kontzeptuari eta diru-sarreren eta ondarearen maila zehazteari buruzko xedapenak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen araudian bilduriko mauak izango dira aplikatzekoak.

***2. artikulua.***– Definizioa.

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria, eskubide subjektibo gisa abenduaren 23ko 18/2008 Legean eraturikoa, prestazio ekonomikoa, aldizkakoa, eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta –edozein izanik ere modalitatea– osatzeko eratu da, prestazio horien titularren ohiko etxebizitza edo bizitokiarekin zerikusia duten premiei aurre egiteko helburuaz, 4. artikuluan bilduriko gastuak beteta.

***3. artikulua.***– Ezaugarriak.

1.– Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria helburu jakin baterako da, eta helburu horretarako soilik baliatuko da.

2.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria izango da indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoei dagokienez, horiek titularrari edo haren bizikidetza-unitateko edozein kideri legozkiokeenean.

3.– Transferiezina izango da, eta, horrenbestez:

a) Ez da obligazio-berme gisa eskaintzerik egongo;

b) Ez da lagatzerik egongo, ez osorik, ezta partzialki ere;

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto la regulación de la Prestación Complementaria de Vivienda, establecida por la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, determinando los conceptos de gasto a cuya cobertura se destina dicha prestación, así como los requisitos para su concesión y los procedimientos que le son aplicables, en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– La Prestación Complementaria de Vivienda se regirá por lo dispuesto en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, el presente Decreto y sus disposiciones de desarrollo.

3.– En lo relativo a los aspectos comunes entre la Prestación Complementaria de Vivienda y la Renta de Garantía de Ingresos previstas en la mencionada Ley, en particular las disposiciones relativas a la unidad de convivencia, el concepto de vivienda o alojamiento y la determinación del nivel de ingresos y de patrimonio, serán de aplicación los preceptos recogidos en la normativa reguladora de la Renta de Garantía de Ingresos.

***Artículo 2.***– Definición.

La Prestación Complementaria de Vivienda, configurada como un derecho subjetivo en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, es una prestación periódica, de naturaleza económica, articulada como un complemento de la Renta de Garantía de Ingresos en cualquiera de sus modalidades, y dirigida a responder a las necesidades relacionadas con la vivienda o alojamiento habitual de las personas titulares de esta última prestación dando cobertura a los gastos contemplados en el artículo 4.

***Artículo 3.***– Características.

1.– La Prestación Complementaria de Vivienda tiene carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto para el que ha sido concedida.

2.– Tiene carácter subsidiario y en su caso, complementario con cualquier otra prestación de contenido económico destinada a la misma finalidad que pudiera corresponder a la persona titular o a cualquiera de las personas miembros de su unidad de convivencia.

3.– Es intransferible y, por lo tanto, no podrá:

a) ofrecerse en garantía de obligaciones;

b) ser objeto de cesión total o parcial;

c) Ez da konpentsatzerik edo deskontatzerik egongo, gizarte-arloko ezein prestazio ekonomiko publikorengatik jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik, prestazioaren jatorria edozein izanda ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren kontzeptuengatik bizikidetza-unitateari dagozkion prestazioen guztizko zenbatekoaren % 30eko gehieneko mugaraino;

d) Ez da atxikitzerik edo bahitzerik egongo, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

***4. artikulua.***– Gastu espezifikoak.

Dekretu honi begira, etxebizitzarekin loturiko premiatzat hartuko dira etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuak, edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierrentamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua.

***5. artikulua.***– Eskubidearen titularrak.

1.– Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak:

a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular izatea, edozein modalitatetan, eta, horrenbestez, eskaturiko eskakizunak biltzea prestazio hori baliatzeko, dagokion arau arautzailean aurreikusirikoaren arabera.

b) Titularrak 4. artikuluan bilduriko ohiko etxebizitza edo bizikotiko aldizkako gastuei erantzun behar izatea, eta ohiko helbidea duen udalerriko udal gizarte-zerbitzuek egiaztatu beharko dute premia hori.

c) Etxebizitza alokatzeko eskatzaile gisa erregistro batean egotea edo egoteko eskatu izana Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide zerbitzuan.

Eskakizun hori ez da eskatzekoa izango honako kasu hauetan:

– Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazioa baliatzeko eskakizunak beteta dituztela, Etxebiden sartzeko eskakizunak betetzen ez dituzten pertsonak, bizileku-eskakizuna betetzen ez dutelako nahiz baliatzeko gutxieneko ekonomikoak betetzen ez dituztelako;

– 65 urtetik gorako pertsonak, zahartzaroko kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioen onuradunak, helbide berean 10 urte baino gehiagoz bizi direla egiaztatzen dutenak, edo gutxieneko epe hori betetzen ez badute ere, ohiko helbidean geratu beharra dutenak, dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren ustez.

d) Inolako ahaidetasunik ez egotea odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko hiru-

c) ser objeto de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las cuantías indebidamente percibidas en concepto de cualquier prestación económica pública de carácter social, independientemente de la procedencia de la misma, hasta un límite máximo de 30% de la cuantía total de las prestaciones que correspondan a la unidad de convivencia por los conceptos de Renta de Garantía de Ingresos y Prestación Complementaria de Vivienda;

d) ser objeto de retención o embargo, salvo en los supuestos y con los límites previstos en la legislación general del Estado que resulte de aplicación.

***Artículo 4.***– Gastos específicos.

A los efectos del presente Decreto, tendrán la consideración de necesidades relacionadas con la vivienda los gastos de alquiler de la vivienda o del alojamiento habitual, en cualquiera de sus modalidades de arrendamiento, subarriendo, coarriendo, hospedaje y alquiler de habitaciones.

***Artículo 5.***– Personas titulares del derecho.

1.– Podrán ser titulares de la Prestación Complementaria de Vivienda las personas que reúnan los siguientes requisitos:

a) Ser titular de la Renta de Garantía de Ingresos, en cualquiera de sus modalidades, debiendo, en consecuencia, reunir los requisitos exigidos para el acceso a dicha prestación, en los términos previstos en su normativa reguladora.

b) Encontrarse la persona titular en la necesidad de hacer frente a los gastos periódicos de vivienda o alojamiento habitual contemplados en el artículo 4, debiendo verificarse dicha necesidad por los servicios sociales municipales del municipio en el que tiene su domicilio habitual.

c) Estar inscrita o haber solicitado la inscripción como solicitante de vivienda de alquiler en el servicio Etxebide del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Este requisito no será exigible en los siguientes casos:

– personas que, cumpliendo los requisitos de acceso a la Renta de Garantía de Ingresos y a la Prestación Complementaria de Vivienda, no cumplan los requisitos de acceso a Etxebide, bien por no cumplir el requisito de residencia, bien por no cumplir los mínimos económicos de acceso;

– personas mayores de 65 años beneficiarias de pensiones contributivas o no contributivas de vejez, que acrediten un tiempo de residencia en el mismo domicilio de más de 10 años o que, aun no cumpliendo este periodo mínimo, requieran, a juicio del Servicio Social de Base correspondiente, mantenerse en su domicilio habitual.

d) No existir relación de parentesco hasta el tercer grado por consanguinidad o afinidad entre cualquiera

garren mailaraino, bizikidetza-unitatea osatzen duen edozein kideren eta etxebizitzaren errentatzailearen artean.

2.– Eskatzaileek ezin izango dute Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria lortu eskatzaileak berak edo haien bizikidetza-unitateko edozein kide honako egoera hauetako batean badaude:

a) Etxebizitza bat alokairuan edo jabetzan izatea, eta etxebizitza hori babes publikoko etxebizitzen moten artekoren batean barne hartuta egotea, eskaera egin zen zuenean indarrean zegoen legedian aurreikusirikoaren arabera.

b) Etxebizitza bat jabetzan edo usufruktuan izatea eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria eskatzea beste etxebizitza baten alokairu-gastuei aurre egiteko, azken hori haren ohiko bizitokia izanda ere, salbu eta banantzeagatik edo dibortzioagatik eta beste arrazoi batzuengatik, hala nola utzarazpena, beren ohiko bizilekua utzi behar izan duten pertsonak badira.

***6. artikulua.***– Titular bat baino gehiago batera gertatzea eta prestazioen gehieneko kopurua etxebizitza edo bizitoki bakoitzeko.

1.– Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bi bizikidetza-unitate edo gehiago bizi badira, beren artean ahaidetasun-loturak dituztela Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2.a) eta b) artikuluan ezarritakoaren arabera, unitate bati bakarrik eman ahalko zaio etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria. Horrela gertatuz gero, prestazioa aurrena eskatu duenari emango zaio, salbu eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek bestelakorik adierazten badute premia handiagoko arrazoiak tarteko.

2.– Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bi bizikidetza-unitate edo gehiago bizi badira, beren artean inolako ahaidetasun-loturarik izan gabe Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gehienez ere Etxebizitzako Gastuetarako bi Prestazio Osagarri eman ahalko dira, horien eskaera-ordena kontuan izanda, betiere aldez aurretik prestazioak baliatzeko aukerak beteta.

Ondorio horietarako, larrialdi handiko egoera dagoela ulertuko da prestazioa eskatzen duen pertsonaren diru-sarrera konputagarriak inolako baliabiderik ez duen pertsona bakar bati legokiokeen Gizarteratzeko eta Gizarte Babeserako Oinarrizko Errentaren % 75aren azpitik daudenean, edo erreferentziako oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ustez larrialdi handiko egoeran dagoenean.

de las personas miembros que constituyen la unidad convivencial de la persona solicitante y la persona arrendadora de la vivienda o cualquiera de las personas miembros de su unidad familiar.

2.– No podrán acceder a la Prestación Complementaria de Vivienda las personas solicitantes cuando ellas mismas o cualquiera de las personas miembros de su unidad de convivencia se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

a) Tener una vivienda en alquiler o en propiedad que se considere incluida en alguno de los tipos de vivienda de protección pública en los términos previstos en la legislación vigente en el momento de la solicitud.

b) Disponer de una vivienda en propiedad o en usufructo y solicitar la Prestación Complementaria de Vivienda para la cobertura de gastos de alquiler de otra vivienda, aun cuando esta última constituyera su residencia habitual, salvo cuando se trate de personas que se hubieran visto obligadas a dejar su domicilio habitual por separación o divorcio y otras causas, como desahucio.

***Artículo 6.***– Concurrencia de titulares y número máximo de prestaciones por vivienda o alojamiento.

1.– En el supuesto de que una misma vivienda particular fuera compartida por dos o más unidades de convivencia unidas entre sí por lazos de parentesco en los términos regulados en el artículo 9.2.a) y b) de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, la Prestación Complementaria de Vivienda sólo podrá otorgarse a una de ellas. En tal caso, se concederá a aquélla que la haya solicitado en primer lugar, salvo que los Servicios Sociales de Base informasen en otro sentido por razones de mayor necesidad.

